

# EKAINA JUNIO
# IRUN

San Pedro - San Martzial

2024

Ayuntamiento irun Udala

www.irun.org

# ZURE IRITZIA
# TU OPINIÓN




## DOINUA, INDARRA, IRUN, IRUNDARRAK

**875 boto**/votos

Aurtengo kartel irabazlea **Naomi González Sánchez irundarraren "Doinua, Indarra, Irun, Irundarrak"** obra izan da. Accesita, berriz, **Ángel Blasco Egoskozabalentzat** izan da, **"Ermita"** obrarekin.

Guztira **3.356** irundarrek parte hartu dute bost finalisten artean kartela hautatzeko bozketan. Honela banatu dira botoak:

El cartel ganador de este año ha sido la obra titulada **"Doinua, Indarra, Irun, Irundarrak"** de la irundarra **Naomi González Sánchez.** El accésit ha sido para **Ángel Blasco Egoskozabal,** con la obra **"Ermita".**

Un total de **3.356** iruneses e irunesas han participado en la votación para elegir el cartel entre los cinco finalistas, con la siguiente distribución de votos:




## ACCÉSIT
## ERMITA

**553 boto**/votos




## DESCARGA

**814 boto**/votos




## HACHEROS

**569 boto**/votos




## CON BOINAS Y A LO LOCO

**545 boto**/votos

**Aurtengo jaietako programan parte hartzen duten tokiko musika-taldeak hautatzeko, 2.200 irundarrek baino gehiagok** parte hartu zuten.

En la **elección de grupos locales de música** que participan en el **programa de las fiestas de este año participaron más de 2.200 iruneses e irunesas.**

KONTSULTA EZAZU JAIETAKO PROGRAMA EDOZEIN TRESNATAN
**CONSULTA EL PROGRAMA DE FIESTAS EN CUALQUIER DISPOSITIVO**



# CRISTINA LABORDA ALBOLEA

Irungo alkatea / Alcaldesa de Irun

## ALKATEAREN AGURRA
## LEHENENGO ALDIA BALITZ BEZALA

## SALUDO DE LA ALCALDESA
## COMO SI FUERA LA PRIMERA VEZ

Irundar maiteok:

Zer poza egun hauetan zuei guztioi mintzatu ahal izatea, oso bereziak dira eta: gure sanpedro eta sanmartzial maiteak. Urte-ro-urtero, **lehenengo aldia balitz bezala** bizi ditugu jaiak, ilusio eta emozio berriarekin, irundarron DNAren parte dira eta. Ezer magikoagorik bai?

Irunek bolbora usaina du dagoeneko, eta hasiak dira irundarrok bakarrik bizi eta goza ditzakegun momentu paregabe eta errepikaezinak: entseguetan txilibituaren soinua etxetik ere entzutea, kale eta saltokiek gure koloreak harro janztea, sanmartzialen kontura berriz elkartzea, ekaineko doinuak hilabete osoan buruan sartzea, familiartean otorduak egitea… eta, nola ez, egun handiaren bezperako kilikadura sentitzea. Dena, beti-beti, **lehenengo aldia balitz bezala**.

Gure aldetik, hiria prest dago. Hilabeteak daramatzagu lanean, egitarau askotariko eta segurua prestatzeko eta guztiok parte hartzeko moduko jarduerak antolatzeko. Gure maitasun eta ilusio guztia jarri dugu proposamen bakoitzean, adinekoak, txikiak eta gazteak gogoan. Ziur nago nork bere tokia aurkituko duela, eta egun gogoangarriak biziko dituzuela, gogo handiz, **lehenengo aldia balitz bezala**.

Gogora ekarri nahi ditut zuzen-zuzenean lan egin eta inplikatuta egitarau hau osatzen laguntzen duten hiriko elkarte eta entitate guztiak. Bihotz-bihotzez, eskerrak ematen dizkizuet zuen laguntzagatik, bai parte hartzen urteak daramatzazuenoi, bai urtetik urtera batzen zaretenoi. Zuei guztioi esker, hiriak intentsitate handiko egunak biziko ditu, adin guztientzako planez beteak, beste urte batez zuen denbora eta indar guztia eskaini duzuelako, **lehenengo aldia balitz bezala**.

Jaiegun hauetan protagonistak bizikidetza eta errespetua izango direla espero dut.

Azkenik, bihotzetik, gogora ekarri nahi ditut dena delakoagatik jaietan gurekin egongo ez diren pertsonak. Ondoan izango zaituztegu, eta espero dut gure poz eta ilusioa transmitituko dizkizuegula, **lehenengo aldia balitz bezala**.

Lehenengo aldiez ari garela, ezin hunkitzeari utzi konturatzen naizenean jai hauek izango direla alkate izanda bizi ditudan lehenengoak. Egunero, oso harro sentitzen naiz, eta erantzukizun handia ere sentitzen dut, zuen alkate izatea inoiz izan dudan pribilegiorik handiena da eta.

Horregatik, ilusioz beteta eskatzen dizuet: lagundu, oraingoan bai, **lehenengo aldiz**, gure aldarrikapen sonatua egiten.

**GORA IRUN, GORA SAN MARTZIAL!**

Queridos iruneses e irunesas

Qué alegría siento al poder dirigirme a todos vosotros/as en unos días tan especiales como lo son nuestras queridas fiestas de San Pedro y San Marcial. Unas fiestas que se viven cada año **como si fuera la primera vez**, con una ilusión y emoción renovada, ya que forman parte del ADN irundarra. ¿Hay algo más mágico?

Y es que en Irun ya huele a pólvora y empiezan a desencadenarse todos esos momentos únicos e irrepetibles que sólo los iruneses e irunesas tenemos la suerte de vivir: ese txilibito que escuchas desde casa ensayando, esas calles y comercios que lucen con orgullo nuestros colores, esos reencuentros sanmarcialeros, esas melodías que nos acompañan durante todo el mes de junio. Las comidas en familia. Y como no…ese cosquilleo la víspera del gran día…y siempre siempre, **como si fuera la primera vez**.

Por nuestra parte os puedo decir que la ciudad está preparada. Llevamos meses trabajando en un programa variado, participativo y seguro. Hemos puesto todo nuestro cariño e ilusión en cada una de las propuestas, pensando en los más mayores, en los txikis y en los jóvenes. Estoy segura de que vais a encontrar vuestro espacio y disfrutaréis de unos días inolvidables, sintiendo ese entusiasmo tan único, **como si fuera la primera vez**.

No quiero olvidarme de todas las asociaciones y entidades de la ciudad que hacéis realidad este programa con vuestro trabajo e implicación en primera persona. Os agradezco de corazón vuestra colaboración, tanto a los que lleváis años participando, como a los que os vais sumando. Gracias a todas vosotras la ciudad va a vivir unos días intensos, llenos de planes para todas las edades y un año más, os habéis implicado con todo vuestro tiempo y energía, **como si fuera la primera vez**.

Mi deseo para estos días es que vivamos unas jornadas festivas en las que el respeto y la convivencia sean las protagonistas.

Por último, quiero dedicar unas sentidas palabras a todas esas personas que por diferentes motivos no van a poder disfrutar de las fiestas. Os llevaremos con nosotros y nosotras y ojalá podamos transmitiros nuestra alegría e ilusión, **como si fuera la primera vez**.

Porque si hablamos de primeras veces, no puedo dejar de emocionarme al pensar que éstas serán mis primeras fiestas como Alcaldesa. Todos los días del año siento un gran orgullo a la vez que responsabilidad, porque ser vuestra alcaldesa, es el mayor privilegio que he tenido nunca.

Por eso, me llena de ilusión pediros que me acompañéis, esta vez sí, **por primera vez**, en nuestro célebre:

**GORA IRUN, GORA SAN MARCIAL!**



# NURIA ALZAGA MARTÍNEZ

Kultura zinegotzia / Concejala de Cultura

## EGUN HANDIENAK

## LOS DÍAS MÁS GRANDES

Hamaika hilabetez zain egon ondoren, azkenik hementxe dugu. Gure ekaina maitea. Egun eguzkitsuak iristen dira, eta horiekin batera, banderez betetzen dira Irungo balkoiak, saltokiek irudimenari bide ematen diote beren erakusleihoak diseinu orijinalekin janzteko, sanmartzialetako martxak entzuten hasten dira kaleetan, eta zuriz, gorriz eta beltzez apaintzen da hiria.

Beste urte batez, gure San Pedro eta San Martzial jai maiteak iristen dira.

Egun hauek erantzukizun maila desberdinetatik bizitzeko zortea izan dut, baina, zalantzarik gabe, aurtengoak bereziki gogoratuko ditut, Kultura arloko ordezkaria izateko ohorearekin biziko ditudan aurrenekoak izango baitira. Irungo herritarren proposamenei, etxekoei, ahotsa eman ahal izatea harro egoteko modukoa da, baina erantzukizun handia ere bada. Horrexegatik, lerro hauek baliatu nahi ditut proposamenei zentzua, forma eta kolorea ematen lagundu didaten pertsona eta tokiko erakunde guziei nire esker onak emateko. Izan ere, aurtengo programa ahaztezina egiten lagundu dute.

Hilabeteetako lana izan da, baina emaitzak ezin zoriontsuago egiten nau. Txikienentzako eta gure adinekoentzako jarduerak, herri bazkariak, kontzertuak eta, jakina, gure jaietako egun handienak...dena, engranaje bikain baten piezak dira, gogoz, konpromisoz eta ilusioz gure jaiak are bereziagoak izaten lagunduko dutenak.

Gozatzeko garaia da, baina baita aurten gurekin ezin egongo direnak gogoratzekoa ere. Haiengatik, jarrai dezagun Irun handiago bat egiten, errespetuaren eta bizikidetzaren esparruko erreferentea izan dadin.

Pertsona askoren ilusioaren eta konpromisoaren emaitza dira sanmartzialak. Jaiak guztion artean egiten ditugu, eta, inola ere, jai ezin parte hartzaileagoak dira. Goza ditzagun.

Bizi ditzagun jaiegun horiek familian eta lagunekin. Beti bezala, egin dezagun egun hauek urteko onenak izan daitezen.

Berriz ere oihuka dezagun argi eta ozenki:

**GORA IRUN! GORA SAN MARTZIAL!**

Once meses esperando y al fin lo tenemos aquí. Nuestro querido mes de junio. Llegan los días de sol y con ellos en Irun los balcones se llenan de banderas, los comercios dejan volar su imaginación para vestir sus escaparates con los diseños más originales, las marchas sanmarcialeras empiezan a sonar por las calles y la ciudad se tiñe de rojo, blanco y negro.

Un año más llegan nuestras queridísimas fiestas de San Pedro y San Marcial.

He tenido la suerte de vivir con intensidad estas fechas desde responsabilidades diferentes, pero, sin duda, éste será un año que recordaré de manera especial por ser el primero que vivo con el honor de ser delegada de Cultura. Poder dar voz a las propuestas de los ciudadanas y ciudadanos de Irun, a los de casa, es un gran orgullo, pero también una gran responsabilidad. Por eso, no quiero dejar pasar la oportunidad, en estas líneas, de agradecer a todas las personas y entidades locales que me han ayudado a darles sentido, forma y color. Que han contribuido hacer del programa de este año, un programa inolvidable.

Han sido meses de trabajo, pero el resultado no puede hacerme más feliz. Desde las actividades dirigidas a los más pequeños y a nuestros mayores, pasando por las comidas populares, conciertos y por supuesto los días más grandes de nuestras fiestas... todo, son piezas de un engranaje perfecto que con ganas, compromiso e ilusión contribuirán a hacer nuestras fiestas más especiales si cabe.

Es tiempo de disfrutar y de recordar también a los que no podrán acompañarnos este año. Sigamos haciendo por ellos un Irun más grande y un referente en el ámbito del respeto y la convivencia.

Los sanmarciales son fruto de la ilusión y el compromiso de muchas personas. Las fiestas las hacemos entre todos y todas, y son sin duda, unas fiestas participativas al máximo. Disfrutemos de ellas.

Vivámoslas en familia y con amigos. Hagamos, como siempre, que estos días se conviertan en los mejores del año.

Volvamos a gritar claro y fuerte:

**GORA IRUN, GORA SAN MARCIAL!**

# 28



## Goiza

**11:00**
**TEKNOLOGIA SORTZAILEA TAILERRA,** Palmera-Monteron, 4 eta 14 urte bitartekoentzat. Ordutegia: 11:00etatik 14:00ra. *Antolatzailea:* ***Asociación Estudiantil Junior Empresa MAWA.***

**11:30**
**HAUR ATRAKZIOAK,** Palmera-Montero auzoko Ricardo Alberdi Zumardia plazan, 2 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, 11:30etatik 13:30ak arte.

## Goiza

**12:00**
**APAR JAIA,** San Juan plazan, LGTBIAQ+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN harira.

## Arratsaldea

**18:30**
**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK – KALEJIRA.** Alberto Anguera plazatik irtengo dira eta Oiartzun, Hondarribia, Zubiaurre eta Geltoki kaleak, Colon ibilbidea eta Foru karrika eta Karrika Nagusian barrena ibiliko dira San Juan plazan amaitzeko. Parte hartzaileak: Irungo Txistulari Taldea, Irungo Atsegiña elkarteko erraldoiak eta buruhandiak, Ondare Kultur Elkarteko erraldoiak eta buruhandiak, Peña Poteo txaranga eta Bidasoako Erraldoiak elkarteko erraldoiak eta buruhandiak.

## Gaua

**23:30**
**MUSIKA, JAMAICA SHOW ORKESTRAREN** emanaldia San Juan plazan.

**00:00**
**PEÑA POTEO FANFARREA,** Zabaltza plazan eta inguruetan.

**00:30**
**MUSIKA, SOTO ASA, SUSO eta KATANAren** emanaldia, 02:30ak arte, Urdanibia plazan.



29

## Goiza

**08:00**
**SAN PEDRO EGUNEKO DIANA,** "Irun Hiria" Musika Bandaren eskutik, zenbait auzotan.

**08:00**
**DIANA** Jostallu Dultzaineroen eskutik, zenbait auzotan.

**10:45**
**UDALBATZA** San Juan plazatik irtengo da jarraigoan, Junkaleko Andre Mariaren Elizara, Irungo Txistulari Taldeak, "Irun hiria" Musika Bandak eta Irungo Atsegina elkarteko erraldoiek lagunduta.

## Goiza

**11:00**
**Meza Nagusia** Junkaleko Andre Mariaren Parrokia Elizan. Bertan izango da Udalbatza. Eskaintzan, Eslavaren **"TU ES PETRUS"** kantatuko du Parrokiako Abesbatzak, hiriko beste abesbatza batzuetako kideekin batera.

**12:00**
Mezaren ondoren, Junkaleko plazatxoan, **AURRESKUA** dantzatuko du **UDALBATZAK.**

## Goiza

**12:30**
**SAN PEDRO EGUNEKO OHIKO KONTZERTUA,** San Juan plazako arkupeetan, "Irun hiria" Musika Bandaren eskutik.

## Gaua

**21:00**
**KALEJIRA.** Txanaleta plazatik abiatuta, Colon ibilbidean, Foru karrikan eta Karrika Nagusian barrena ibiliko da San Juan plaza inguruan amaitzeko. "Irun Hiria" Musika Bandak eta Los Tranquilos fanfarreak parte hartuko dute.

## Gaua

**21:00**
**LOS TRANKILOS fanfarrea** hiriko hainbat kaletan ibiliko da.

**22:00**
**LASTARGIEN EKINTZAREN OROITZAPEN EKITALDIA.** Irungo erdialdeko Anbulatoriotik irtengo da. Ibilbidea: Artaleku, Karrika Nagusia, San Juan, San Martzial, Sargia, Larretxipi, Ermita, Arbesko Errota eta Artiako zubia. *Antolatzailea: **Pagoki Emakume Elkartea.***

# 30



## Goiza

**04:00**
Ohiko tokietan, **ALBORADA.**

**06:00**
Villarobledoko **DIANA***.

**06:00**
San Martzial eguneko **ALARDEAREN HASIERA***.

**11:00**
**ERROMERIA** San Martzial mendian.

## Goiza

**12:00**
San Martzial mendian, **1522ko BOTO SEKULARRA BETEKO DU** Udalbatzak.

## Gaua

**22:30**
**DISKOFESTA 16 urte** bitarteko gazteentzat, Urdanibia plazan, 24:00ak arte.

## Gaua

**23:30**
**MUSIKA,** DJ-ren emanaldia, 80/90 urteetako musika, Zabaltza plazan.

**00:20**
**DISKOFESTA, 17 urtetik** gorako gazteentzat, Urdanibia plazan.



* Gizarte-ekimen horiek ez ditu Udalak antolatu.

# 1




## Goiza

**08:00**
**ABERE LEHIAKETA** Urdanibia plazan. *Antolatzailea:* ***Gipuzkoako Foru Aldundia eta Irungo Udala.***

**10:00**
**TRIKITILARIAK,** Urdanibia plazan. *Antolatzailea:* ***Irungo Euskal Kirolak.***

**11:30**
**BERTSOLARIAK,** Urdanibia plazan. *Antolatzailea:* ***Irungo Euskal Kirolak.***

## Goiza

**12:00**
**HERRI KIROLAK,** Urdanibia plazan. *Antolatzailea:* ***Irungo Euskal Kirolak.***

**13:00**
**ABERE LEHIAKETAKO SARI BANAKETA,** Urdanibia plazan.

## Arratsaldea

**18:00**
**XXXIII. FANDANGO ETA ARIN-ARIN TXAPELKETA,** eta ondoren, **HERRI ERROMERIA,** Urdanibia plazan. *Antolatzailea:* ***Meakako Adixkideak Dantza Taldea.***

**18:00**
**PROFESIONALEN ESKU PILOTA JAIALDIA,** Uranzu pilotalekuan.

**19:00**
**GAUERDI fanfarrea,** Zabaltza plazan, Luis Mariano plazan eta inguruetan.

**21:00**
**LOS PEROLAS fanfarrea,** Zabaltza plazatik inguruetara.

## Gaua

**22:45**
**SU ARTIFIZIALAK** CABALLER FX-GLOBAL FOC PIROTEKNIAREN eskutik, San Migel auzoko Donostia kalean. **JASAK ORTZIAN** ikuskizun piroteknikoa eskainiko du.

**23:15**
**BAKARRIZKETA JAIALDIA. CORBACHO eta PAULA PÚAren** emanaldia Zabaltza plazan, **Asier Burguetek** aurkeztuta.

*Programan edozein aldaketa eginez gero, **www.irun.org** udal webgunean argitaratuko da.

## JARDUERA ETA INFORMAZIO MAPA
MAPA DE ACTIVIDADES E INFORMACIÓN

**Txoznak**
Txoznas

**Barrakak**
Barracas

**Eszenatoki nagusiak**
Escenarios principales

**Umeentzako jarduerak**
Actividades para niños

**Postu ibiltariak**
Puestos ambulantes

**Su artifizialak**
Fuegos artificiales

**WC**

**San Martzialera igotzeko bus geltokia: ekainak 30.**
Parada de bus subida a San Marcial: 30 de junio.

**Taxi zerbitzua**
Servicio taxi

**Disuasio aparkalekua**
Aparcamiento disuasorio

**Aparkalekua**
Aparcamiento

**Sarbide moztua**
Acceso cortado

**Gaztegunea**
Gaztegune

**Informazio gehiago 36 orrialdean.**
Más información en la pág. 36.

## INFORMAZIO PUNTUAK
## PUNTOS DE INFORMACIÓN

- **Ekainak 14** de junio, **plaza Urdanibia**, 22:00-01:00
- **Ekainak 15** de junio, **plaza San Juan**, 22:00-01:00
- **Ekainak 21** de junio, **calle San Marcial**, 22:00-01:00
- **Ekainak 22** de junio, **Ficoba**, 17:00-20:00
- **Ekainak 22** de junio, **plaza Urdanibia**, 22:30-02:30
- **Ekainak 23** de junio, **plaza Urdanibia**, 22:30-02:30
- **Ekainak 27** de junio, **plaza Istillaga**, 21:00-00:00
- **Ekainak 28** de junio, **plaza Urdanibia**, 22:00-02:00
- **Ekainak 30** de junio, **plaza Urdanibia**, 21:30-01:30

INFORMAZIO GEHIAGO 36 ORRIALDEAN. / MÁS INFO EN LA PÁGINA 36.

## BIOLENTZIA MATXISTEN AURREAN

## *ANTE LAS VIOLENCIAS MACHISTAS*

**SERVICIO DE ATENCIÓN Y ACOMPAÑAMIENTO A LAS VÍCTIMAS DE VIOLENCIAS MACHISTAS**

24H

**607 070 202**

092 • 112



## BARRAKAK FICOBAN Ekainaren 15etik uztailaren 2ra arte.
## *BARRACAS EN FICOBA Del 15 de junio al 2 de julio.*

EGUN HERRIKOIAK: 06/18, 07/01 eta 07/02
*DÍAS POPULARES: 18/06, 01/07 y 02/07*

Saltokiak Luis Mariano kalean. Ekainaren 15etik 30era arte.
Puestos en la calle Luis Mariano. Del 15 al 30 de junio.

Txoznak Urdanibia plazan. Ekainaren 14tik uztailaren 1era arte.
Txoznas en la plaza Urdanibia. Del 14 de junio al 1 de julio.



# IRUNGO JAIETARAKO
# GOMENDIOAK ETA AHOLKUAK
# RECOMENDACIONES Y CONSEJOS
# DURANTE LAS FIESTAS DE IRUN

**ZAINDU ZURE GAUZAK**
VIGILA TUS PERTENENCIAS

**DIBERTSIOA ETA JAIA EZ DAUDE GIZALEGETIK APARTE**
LA DIVERSIÓN Y LA FIESTA NO ESTÁ REÑIDA CON EL CIVISMO

**ZAINDU UMEAK**
CUIDADO CON LOS/AS NIÑOS/AS

**EZ GIDATU, ALKOHOLIK EDAN BADUZU**
EVITAR LA CONDUCCIÓN SI SE HA BEBIDO ALCOHOL

TRAFIKOA ETA GARRAIO PUBLIKOA
TRÁFICO Y TRANSPORTE PÚBLICO

**ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEI GOGORARAZTEN DIEGU DEBEKATUTA DAGOELA 18 URTETIK BEHERAKOEI ALKOHOLA SALTZEA**
RECORDAR A LOS ESTABLECIMIENTOS PÚBLICOS LA PROHIBICIÓN DE VENDER ALCOHOL A LOS MENORES DE 18 AÑOS

**Jaietan errespetatu**

**ERABILI KOMUNAK**
*UTILIZA LOS W.C.*

**EDAN NEURRIAN**
*BEBE CON MODERACIÓN*

**ERABILI ZAKARRONTZIAK**
*UTILIZA LAS PAPELERAS*

**BIZILAGUNAK EZ MOLESTATU**
*NO MOLESTES A VECINOS*

**En Fiestas respeta**

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

## GALDUTAKO GAUZEN ZERBITZUA
## SERVICIO DE OBJETOS PERDIDOS

HAZek kudeatzen du zerbitzu hori, aurkitzen duzuna entregatu dezazun edo galdu duzuna berreskuratu.
El SAC gestiona este servicio cuya finalidad es que entregues lo que has encontrado o recuperes lo que has perdido.

**HAZ** Herritarrentzako Arreta Zerbitzua.
**SAC** Servicio de Atención Ciudadana.
c/ San Marcial, 2.
**Tel. 010 - 943 50 51 52**


VIGILANTIÆ CUSTOS.